

Sputnik 1, sobietarren ezustekoa

Ana Galarraga Aiestaran

Elhuyar Zientziaren Komunikazioa

Duela hamarkada batzuk, estatubatuarrak eta sobietarrak gerran zeuden. “Gerra hotza” deitzen zioten, ez zituztelako su-armak erabili, nahiz eta biek ere arma nuklearren mehatxua erabili bestea beldurtzeko. Gerraren beste joko-zelaietako bat espazioa zen, eta hor, 1957ko urriaren 4an, Sobiet Batasunak aurrea hartu zien Amerikako Estatu Batuei. Gerra agian ez, baina bataila behintzat irabazi zuen.

IZAN ERE, EGUN HORRETAN, SOBIETARREK LEHEN SATELITE ARTIFIZIALA Lurraren orbitan jartzea lortu zuten. Gaur egungo begiekin begiratuta, *Sputnik 1* sateliteak ez dirudi gauza handia: aluminiozko esfera xume bat zen, 84 kilo pisatzen zituen, eta haren egitekoa atmosferaren goialdearen dentsitatea aztertzea zen. Datuak irrati-transmisore baten bidez bidaltzen zituen Lurrera, eta, orbitan 21 egun pasatu ondoren, mututu egin zen. Egun batzuk geroago, 1958ko urtarrilaren 4an, Lurraren atmosferan sartu eta guttiz kiskali zen. Hala ere, hori nahikoa izan zen estatubatuarrak gainditzeko.



Gerra hori aspaldi hasi zen. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, munduko bi potentzia nagusiak lehiatzen hasi ziren. Batez ere, bi arlotan jarri zuten arreta: misil militarrek eta atmosferaren goialdea ikertzeko sateliteak. Epe-muga ere bazuten: 1957-1958 Geofisikaren Nazioarteko Urtea izendatu zuten; beraz, ordurako prestatu behar zuten orbitan jarri eta bertatik datuak bidaliko zituen tresna.

Aipatutako bi arloak ez zeuden oso urruti bata bestetik; hain zuzen, ikerketa militarrek eman zien sobietarrei gudu irabazteko giltza. Arma nuklearrak jaurtitzeko, estatubatuarrak abioiak erabiltzeko asmoa zuten; aldiz, sobietarrek ideia berri bat zuten: koheteen bidez jaurtitzea. Ingeniari sobietarrek kontinenteen arteko lehen misil balistikoak diseinatu zituzten. Laster konturatu ziren kohete ahaltsu horiek atmosfera zeharkatzeko adina indar zutela.

NASA

1957ko ekainerako, prest zuten bi antenadun satellite esferiko distiratsu bat. Haren izen ofiziala *Iskustvennyi Sputnik Zemli* zen, hau da, “Lurreko bidaiari artifiziala”. Abuztuan, koheteak probatu zituzten, eta Nikita Khrushchev lehen ministro sobietarrak *Sputnik* satelitea irailaren 17an jaurtitzeko baimena eman zuen. Izan ere, Konstantin Tsiolkovsky kosmonautikaren aita jaiotza zela ehun urte betetzen ziren egun horretan. Alabaina, arazo teknikoak zirela eta, jaurtiketa atzeratu egin behar izan zuten.


Espazioko lasterketaren akuilua

Azkenean, satelitea urriaren 2an muntatu zuten Kazhakhstan-go Baikonur kosmodromoan; irratia probatu zuten, satelitea estali eta jaurtigailua prestatu. Urriaren 4an, tronpeta-hotsekin batera, Moskun 10:28 p.m. zirenean, *Sputnik 1*-ak Lurra utzi zuen. Harrizko bada ere, sobietarrek sekretupean gorde zuten jaurtiketa-unea, eta ez zuten argazkirik atera.

Satelitea jaurtiki ondoren eta irrati-seinaleak jaso bitartean pasatako minutuak ez ziren gozoak izan, baina itxaroteak merezi zuen: 95 minutu zain egon eta gero, *Sputnik 1*-a orbitan zegoela egiaztatzen zuten irrati-seinalea iritsi zen. Orduan, TASS berri-agentzia ofizialak mundu osora zabaldu zuen albistea.



Sobiet Batasunak 1976an ateratako zigilua.



Kennedy Space Center museoan ere badute Sputnik bat.

AEBetan, New Yorken 5:58 p.m. zirenean jaso zuten berria. Eisenhower presidenteak, garrantzia kendu nahian, “airean dagoen bola txikitxo” deitu zion. Kolpea, ordea, latza izan zen. Nahiz eta ezkututzen saiatu, sobietarrek aurrea hartu zieten, erantzun beharra zegoen.

“*ikerketa militarrek eman ziren sobietarrei espazioko gudua irabazteko giltza*”

1958ko uztailearen 29an, Eisenhowerrek AEBetako espazio-agentzia sortzeko legea sinatu zuen, eta urriaren 1ean jaiotzen NASA. Horrekin batera, zientzialariak eta ingeniariak eratzeko programa berezi bat jarri zuten martxan, eta denbora gutxian Zientzia Elkartearen aurrekontua ia hirukoiztu egin zuten.

Zalantzarik gabe, *Sputnik 1* espazioko ikerketen akuilu bihurtu zen, eta, 1969ko uztailearen 20an Neil Amstrong llogira iritsi eta “pauso txiki bat gizonezkoentzat, ikaragarritzko pausoa gizadiarentzat” esan zuen arte, sobietarrek eta estatubatuarrek parekatuta ibili ziren espazioko lasterketan.

Sputnik bat salgai

Nork esango zuen garai hartan Sputnik satelite mitikoak egunen batean merkatuan erosi ahal izango zirela! Baina hala da: orain, Interneten, Sovietski.com eta eBay Inc. atarietan hain zuten, Sputnik bat jarri dute enkantean; hasteko, 25.000 dolarreko prezioa jarri diote. Sputnika egiazkoa bada, ikaragarritzko pagotxa dela uste dute adituek. Adibidez, duela bi urte, Sputnik bat erosteko 100.000 dolar ordaindu behar izan zizkion AEBetako Seattle-ko Hegaldi Museoak Moskuko Kosmonauten Museoari.

Alabaina, batek baino gehiagok zalantzan jartzen du satelitea egiazkoa denik. Sobiet Batasunean garai hartan hainbat Sputnik egin baziren ere, inork ez daki zenbat izan ziren. Auto klasikoaren saltzaile estatubatuar batek benetako bi Sputnik ditu, eta, autoekin duen esperientzian oinarrituta, faltsifikazio on bat egitea ez zaio batere zaila iruditzen. Hori bai, bereak egiazkoak omen dira, Moskuko Lorpen Teknikoen Museoaren bermea baitute.

Zalantzak zalantza, seguru badagoela Sputnik bat erosteko irrikatan dagoen norbait. Horietako bat bazara, zorte on enkantean!